

# Karkara

*karkara.eus*

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2019ko martxoaren 29a · 404. zenbakia

## Pole Dance-a, ahalduntzeko bide



Kirola probatzeko asmotan gerturatu zen Irati Agirre barra ingurura. Orain, hiru urte beteko dituen akademia propioan dabil buru belarri lanean.

**Villar Autobusak**  
Bidai nazionalak eta nazioartekoak  
83 eserleku



**Autocares Villar**  
Orio (Gipuzkoa)  
Tel: 609402537  
Email: autocaresvillar@yahoo.es  
[www.autocaresvillar.com](http://www.autocaresvillar.com)

**garay**  
manufacture

**SUKALDEAK**

[www.garay.eus](http://www.garay.eus)  
*1985tik sukalde altzaritan lanetan.*

HITZORDUA ESKATU ETA  
LANTEGIRA HURBILDU  
Olabidea aldea 1  
(Errotaberri Industrialdea)  
20.800 Zarautz  
**943 13 31 09**

**Sagasti**  
LEIHOAK

Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 53 71 30  
[sagasti@sagastileihoak.com](mailto:sagasti@sagastileihoak.com)  
Arrieta kalea, 83  
30010 Ochoa

Kalitatezko materialak  
PVC eta aluminioa - Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua  
[www.sagastileihoak.com](http://www.sagastileihoak.com)

**Joseba**  
ARROZTEGIA • CARPINTERIA

687 683 427  
[josebaarotza@gmail.com](mailto:josebaarotza@gmail.com)

ATEAK  
ZOKALOK  
ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
ARROZTEGIA OROKORREAN

**%70**

**... eta hobetu genezake**

**BIRZIKLATU**



404

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.eus

## Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

**Erredaktore burua**  
Ainara Lasa

**Erredakzio taldea**  
Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Miriam Garcia  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Sonia Albizu

## Ale honetako kolaboratzaileak

Alazne Arruti  
Egoitz Eizagirre  
Eli Huegun  
Iñaki Iturain  
Jabier Zabaleta  
Andrea Zipitri

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaileak

Egoitz Epelde (Orio)  
Naroa Miralles (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

## Inprimategia

Antza S.L (Lasarte-Oria)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

# TOKIKOM



## LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala Orioko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia

*Hasi bertsotan* atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan, Egoitz Eizagirre-ren bertsoa, ondorengo puntuarekin: *Hatoz itxi ta gero, gu gaude umezurtz*. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

## PUNTUA JARRITA

**EGOITZ EIZAGIRRE** (DOINUA: XARMANGARRIA ZIRA)

### 1

#### Hatoz itxi ta gero, gu gaude umezurtz;

bertan goxo ibili  
gara zenbait orduz.  
Orain gabilta nora  
jo ezin asmatuz,  
hausnartu behar da zer  
egiten duen huts.

### 2

Urbilen egun pasa,  
konprak ta zinema,  
lokalean zerbeza  
lagunarte dena,  
latza da negozio  
txikien dilema;  
zabaltzean joan ez,  
eta ixtean pena.



Hatoz taberna zenaren kanpoaldea. KARKARA

### Hurreng bertsolaria:

Mikel Iruretagoiena

### Puntua:

Hurren bertso eskolak  
hartu du indarra.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## Lehen punk kontzertua Orion

Kaixo, Patxi Uranga naiz, Piccaseteko espetxetik. Iazko urtearen amaieran argitaratutako liburu batean, duela 34 urte Orion ospatutako lehen punk kontzertuaren berri bat topatu dut eta horren berri ematera natorkizue, bitxikeria gisa agian, interesgarria eta baliagarria izango zaizuelakoan.

Urte berriarekin batera, Arrasateko Rip talde historikoari buruzko liburua iritsi zen nire eskuetara. *Lar-ga vida a RIP* gazteleraz idatzia eta punk taldeari buruz inoiz egindako lanik osoena. Altxor bat taldearen jarraitzaile nahiz generoa maite duen edonorentzat.

Izugarrizko lana burutu dute Judit Urriach eta Fernando Alonso egileek. Garaiko hamaika protagonistaren testigantzekin osatu dute liburuaren bizkar-hezurra Txerra Bolinaga batera jotzailea (bizirik den bakarra), taldearen inguruko jendea, adiskide zituzten beste taldeetako kideak...

Urtez urte sailkatua, hasi eta buka sakoan eta zehatz deskribatzen dituzte garaiko giro politiko itogarria, ezarritako arauekin apurtu nahia, azpiegiturarik eza, zaldiaren agertzea eta eragindako sarraskia, kontzertutako giroa, ezker abertzaleko sektore batekin izandako tirabirak, denborarekin lortutako onespena, jakitun izan gabe lortutako sona...

Guztia dozenako argazkiz, garaiko fanzine eta prentsan argitaratutakoez, abesti guztien hitzez, musikari ezagunen iritzi osatua eta CD batez lagundua.

Oriok ere badu tartetxoa liburuan, Rip-ekoek herriko plazan jo zutenaz. 1985eko abenduaren 6an izan zen, san nikolasetan, *Baldin Bada, Bap!!*, *Ximorra, Kuartro Ele* eta Kataluniako *L'Odì Sociale*kin batera; herriko gazte batzuen ekimenez, festa batzordeak proposamena eginda. Adinez ni baino nagusiagoak direnek gogoan izango dute aurretik sortutako ikusmina eta zalaparta guztia. Punkiak zetozela, apokalipsia zekartela eta,

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

gutxi edo gehiago, herria prestatu beharra zegoela inbasioari aurre egiteko. Denborarekin ulertuko zuten entzundako kontu apokaliptiko guzti horiek ez zirela hainbesterako izan.

Gehiago izan zela ez ezagutza eta apurtzailea zen estetika, musika eta giro batekiko aurreiritzi sorta, gehiegi puztutako elur bola. Plazan gogo dantzatzan bildu zen jendea ezarritako arauetatik at, ondo pasa, espermentatu eta bizi zuen egoerari ostia txarrez abestu nahi zion belau-naldi baten parte besterik ez zela. Bertan zen Santi Manterola herri-tarra, ordurako mugimendu hartan erabat murgildua eta entzule nahiz musikari gisa zaildua.

Berak zioztan KARKARAKo egindako elkarrizketa baten ostean, nola garai hartan gandorra eramateak edota katezko gerrikoa janzteak poliziaren etengabeko jazarpena suposatzen zuen. Gaur egun, modako osagarriak direnak orduan arazo iturri ziren. Nork imajina dezake Arturo Vidal futbolaria horma baten kontra, hankak zabalik, poliziak kaleerdian itandua gandorra eramateagatik?

Kontzertua ospatu zen azkenean eta, tirabira bat edo beste kenduta, apokalipsia ez zen iritsi. Tabernek, plazako zutabeek eta teilatuak, eli-

zak, herriak zutik jarraitu zuen eta punkiak ez ziren herritik joan. Bitxikeria gisa esan, taldeetako batek, *Baldin Badak*, 8 urte beranduago plazan jo zuela berriro, festetan, Zarauzko *Iluna Beltza* taldearekin batera.

• **Patxi Uranga**

## Mandalara taldearen datozen ekitaldiak

Kaixo aiar eta oriotarrak.

Urtero bezala, Gipuzkoa Solidario Kutxak Gipuzkoako elkarteei, dirulaguntzak eman dizkie beren proiektuak aurrera ateratzeko.

Pasa den abenduan Mandalara Elkartek aukeztu zuen *Transitando hacia el final de la vida* proiektua; martxoaren hasieran gure proiektua onartua izan zela baieztatu ziguten.

Honen funtsa heriotzaren inguruko gaiez jardutea da, eta gizartean lantzea hain beharrezkoa den gaia argitara ekartzen.

Proiektua hamaika ekitaldiz osatua dago, besteak beste, hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, topaketak...

Hasierakoa ostiral honetan, martxoaren 29an, izango da Donostian. Zehazki, heriotzaren pedagogikoari buruzko solasaldia eskainiko da, lau adituren eskutik.

Oriok ere dagoeneko itxi dugu ekitaldi bat datorren maiatzaren 31erako, *Zainketa aringarriak* lelopean, Matia Fundazioko Lori Thompsonen eskutik.

• **Amaia Gozategi.** Mandalara elkarteko kidea.

## Txikitik, xumetik, eta elkarlanean

Maiatzeko hauteskundeetan Orioko EH-Bilduko alkategai izango naiz. Karkaran irakurriko zenuten edo bestela, herriko norbaitek komentatuko zizun honezkero.

*Hau erotuta dago! lana izanda marroi ederretan sartzera hoa! hor edozein sartu liteke!* Behin baina gehiagotan jaso ditut horrelako mezuak, batzuetan min egiteraino. Umeen

aitaren *baimena* badudan galdetu didanik ere izan da, pentsa! Bizi dugun gizartearen isla dira erantzun horiek eta nik, erronka hau hartzearen arrazoi bihurtu ditut.

Gaur ni Orioko EH-Bilduko alkategaia izatearen ibilbidea azaroan hasi zen. Herritarren artean gogoko izan zitezkeen hautagaien galdetegi bat egin zen eta hor abiatu zen abentura zirraragarri hau.

Lau hilabeteren ostean hemen nago, gogotsu eta ahaldunduta, erronka berri hau hartzeko grinez eta amesten nituen osagarri guztiak eskuartean ditudala: nire lan ibilbideak ematen didan bermea, etxekoen babesa, talde bikain bat eta erronkaz beteriko lau urte aurretik.

Aurretik dudana badakit ez dela erraza izango, desikasi beharko dut berriz ikasteko eta eroriko naiz berriz zutitzeko. Ez naiz inor baino gehiago ez eta gutxiago, lanerako eta batez ere ikasteko gogoz dagoen herritarra baizik.

Oraindik ere, tabernako barratik harago, dagokion tokietan eraginez,

mundu hobea posible dela sinesten jarraitzen duen pertsona arraro horietako bat naiz. Konfort egoeran bizitzea eroso izan daitekeela baina erosotasunak beste hainbat esperimentzia aberasgarri bizitzea galarazten duela pentsatzen duen pertsona ameslari horietako bat.

Bereizten gaituenetik baino, bizen gaituzten iritzietan begirada jarritz harremantzeak, paisaia berrietara eramane gaitzakeen zubiak sorrarazten dituela sutsuki sinesten duen pertsona baikor bat.

Finean, txikitik, xumetik eta elkarlanean, gure herrian positiboki eragin nahi duen talde zoragarri bateko gidaria.

• **Anuska Olliden.** Orioko EH Bilduko alkategaia.

## ***Hauteskunde orokorrak, posta bidezko botoa***

Apirilak 28an izango diren hauteskunde orokorretara begira, posta bidezko boto arrunta eta gaixo edo ezgaituena eman ahal izateko infor-

mazioa:

Martxoaren 5etik apirilaren 18ra arte epea zabalik dago. Kontsultarako telefonoa:

Orioko Batzokia, 943 890 789

• **Orioko EAJ.**

## **ZORIONAK**

- Maider Manzanos Agirre, martxoaren 7an 23 urte.
- Goiuri Unanue Arruabarrena, martxoaren 7an, 25 urte.
- Maitane Escudero Elordi, martxoaren 14an, 23 urte.
- Xabier Makazaga Larretxea, martxoaren 14an, 23 urte.
- Julen Fernández Sarrionandia, martxoaren 14an 21 urte.
- Idoia Mugica Uranga, martxoaren 16an, 23 urte.

## **JAIOTAKOAK**

- Manfred Russelll Hoyes Solis, otsailaren 1ean.
- Izar Arrozpide Blanco, otsailaren 5ean.
- Alba Yeregui Torres, otsailaren 12an.
- Kai Custodio Beldarrain, otsailaren 26an.
- Mikel Juaristi Garate, martxoaren 10ean.
- Haley Rodrigo Valiente, martxoaren 12an.

## **EZKONDUTAKOAK**

- Erik Navas Alvarez eta Maria Mantrola Ondoizabal, martxoaren 15ean.
- Gorka Llona Azcorra eta Nagore Rementeria Argote, martxoaren 1ean.

## **HILDAKOAK**

- Angela Estebanez Miguel, otsailaren 27an, 90 urte.
- Luis Segurola Alkorta, martxoaren 2an, 92 urte.
- Anttoni Aduriz Etxeberria, martxoaren 6an, 87 urte.
- Xanti Murua Martinez, martxoaren 8an.
- Sofia Villar Nuñez, martxoaren 13an, 94 urte.
- Pepita Larrañaga Azpeitia, martxoaren 24ean, 95 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**



Orioko emakume kuadrilla arratsaldeko manifestazioan. KARKARA



Nesken ontzia Oriaren XXV. Jaitsiera irabazi berri. KARKARA



Zarauzko Buffalo taldea. LAURA MINER

# Oihuak, paladak, xuxurlak

"Ilusioa eta banderak irabazteko grina du gure taldeak. Lanean jarraituz gero punta-puntan ibili gaitzke".

**H**asiera berezia izan du korrika eta presaka alde egin digun hilabeteak. Martxoak 8a data esanguratsua bihurtu da azken urteotan. Gero eta ozenagoak dira oihuak. Goizean goizetik Orioko emakumeek\* amantalak jantzi eta kaleak hartu zituzten, diana zaratsua eginaz herrian zehar. *Gora borroka feminista!* garrasia izan zen nagusi, txilibitu eta kazuela soinu artean. Emakumeen Eguneko murala ere margotu zuten, *Bizitzak erdigunean* lelopean. Iluntzean berriz ere jendetza bildu zen manifestazioan. *Ixilik ez gaude ederrago*, *Emakumeok\* planto*, *Zaintzak plazara...* kartelak gogotsu altxatuz.

Orioko tradizioen parte bilakatutako Oriaren XXV. Jaitsiera ere izan genuen hilaren bederatzian. Emaitza zoragarriak lortu zituzten gure traineruek. Nesken ontziak lehen postua eskuratu zuen, 4000 metroko distantzia 15 minutu eta 22 segundotan eginda. A ze urtea ari diren egiten! Itxaso Azkonobieta arraunlariak bizitzen ari diren momentu onaren berri eman zion KARKARari: *Ilusioa eta banderak irabazteko grina ditu gure taldeak, eta ohartu gara lanean jarraituz gero punta-puntan ibili gaitzkeela*. Gizonezkoek ere 19:58ko denboran gauzatu zituzten Mapil-Aginaga eta Orio bitarteko 6000 metroak.

Manifestazioko oihu eta jaitsierako paladetatik, Buffalo talde zarauztarraren musika instrumentalera. Jazz, funk eta rock doinuak eskaini zituzten Kultur Etxean emandako kontzertuan. Hirugarren diskoa aurkeztu zuten, *Ulu* izenpean. Bertaratu zirenek, ordea, ulua baino xuxurlara gehiago gerturatzen ziren melodiez gozatzeko aukera izan zuten.

KARKARIÑOAK



# Joango al zara Aiako Txakolin Egunera?



“Osasunak uzten badit, noski joango naizela”

**U**rtero joan ohi gara Aiako Txakolin egunera, festa hori egiten hasi zirenetik. Egia da azken bi urteetan ezin izan dudala joan, osasun arazoak tarteko.

Lehenengo edizioetan jende gutxiago joaten zen Txakolin Egunera, aiarrak eta oriotarrak gehienbat. Urteak urtera, izena hartzen joan da, Landare Azokarekin batera, eta gero eta bisitari gehiago etortzen da.

Aian ere baditugu txakolindegia eta horiek zein ingurukoak ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen du egun horrek. Osasunak uzten badit, joango naiz.

**Pedro Amilibia**



“Ez nekien Aian egiten zenik. Han izango naiz!”

**E**z nekien Aian Txakolin Eguna egiten zenik! Zarautzen eta Getarian badakit egin ohi dela, eta askotan joan izan naiz. Orain dela gutxi etorri naiz Oriora bizitzera, eta egia esan ez naiz sekula Aian izan.

Plan ederra dirudi, askotan egiten dituzte Zarautzko udaletxeko plazan gastronomia ekitaldiak eta beti joan naiz halako ekimenetara.

Eskerrik asko KARKARari honen berri emateagatik, ziur joango garela Aiara, Txakolin eguneko festa giroaz gozatu eta bide batez, herria ezagutzera!

**Elena Santana**



“Giroa egongo da. Ea eguraldiak laguntzen duen!”

**O**rain dela 50 urteko txakolina eta oraingoak ez dute batere zerikusirik. Iraganean neronek lagundu nuen mahatsondoak berritzen, eta horiek uzta ona emateko denbora behar da, emaitzak ez dira berehalakoan lortzen. Izatez Igeldokoa naiz baina 39 urte bat daramatzat hemen bizitzen. Ahal duan guztietan joaten naiz Aiako Txakolin egunera, giro ederra sortzen da, upeltegi askotako txakolina edan daiteke eta pintxoak ere eskaintzen dituzte.

Ea aurtengoan eguraldi ona egiten digun!

**Agustín Olasagasti**

  
**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra

  
**Harrespil**  
Hilerriz Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

# Iritziak iritzi



Eli Huegun

**“Hurrengo egunetan hedabideetan irakurriko dudan artikulu bat ezeztatuko du argazki horrek, neska nerabe engainatuak baino joan ez zirela esaten.”**

**N**orberaren iritzia ematearen mundu txundigarri honetan, onartu behar dut kostatzen zaidala errealitatearen irakurketa txapuzero baten arabera sortu diren iritzi horiek irakurtzea. Gerrarako grina sartzen zait.

Martxoaren 8ko manifestazioa, Madrilen. Berandu noa, harritzekoa. Heltzen naizenerako kale nagusia leporaino dago, beheko plazara jaistea da nire asmoa, udaletxe parera, baina hara iristerako egin beharreko kilometro erdian dauden -gauden- milaka pertsonen ezinezkoa egiten didate nahi nuen lekura iristea. Nahi baino beranduago iristearen ondorioak.

Manifestazioaren puntu horretan, hasieran, gehien harritzen nauena jendearen adina da: hirugarren adineko jendea da nagusi, zalantzarik gabe. Hurrengo egunetan hedabideetan irakurriko dudako artikulu bat ezeztatuko du argazki horrek, neska nerabe engainatuak baino joan ez zirela esaten zuena. Artikuluak, noski, ehundaka sarrera sarean, adoktrinamenduaren arriskuez iritzia emanaz gehienak.

Masa barnera sartu ordez, izkina batean itxaron dut, aurrerago sartzeko asmotan. Ezin badut nahi nuen manifestaren puntura neroni iritsi, manifa nigana iritsi arte zain egon beharko. Jendeak aurrera egin ahala, gazte

engainatu horiek hasi dira agertzen, eta eurekin batera, dozenaka kartel. Bagoaz jendartera.

Gustatu zaizkidan karteletan argazkia atera diet: *ez erosi, adoptatu; amantala traspasatzen da, negozio ona, inoiz ez da lanik falta; askatasuna jardunez ulertzen da...* Bada imajinazioa duen jendea e? joño.

Ibilbidearen amaierara hurbiltzen ari garela, hiriko areto ezagunenetako baten parean geratu naiz. Neoziko argien azpiko pantailan, manifestazioaren aldeko esaldiak: *ez da zortea izango, feminismoa izango da; ez da rock&rolla izango, feminismoa izango da; M8 Madril feminista*. Rock and rollarena ez dut oso ondo ulertu baina ez diot kasu handiegirik egin, emakume ugari ikusi ditut bertan lanean eta greba laborala etorri zait gogora, enpresarena zein puntutaraino ote den posturoa geratu naiz pentsatzen.

Hurrengo egunetan berriro gogoratuko naiz une horrekin, zuzentasun politikoaren mantrak edonora jarraituko baitit.

Manifestazioa amaitu da, eta banoa handik. Bidean, auto baten gainean kartel bat ikusi dut, ez dakit abandonatu egin duten edo nahita utzi bertan. Baina zera dio: *gure begiak izango bazenituzte, gurekin batera egingo zenukete oihu*. Hori ba.



# Oroitza preziatua

## Kritika Iragana Gogoratuz

GFAko Auspoa sailak argitaratu berri du Joxemari Lertxundiren 'Iragana gogoratuz' liburua. Salgai da Zarauzko Garoa liburu-dendan


**E**saldi musikatu batek *Ez daukanak ongi ohi daki, edukitzea zein den on* dio, eta oroitza baino gauza prezia- turik zaila izango dela galtzen pen- tsatu izan dut sarritan.

Iraganak eragin nabaria izaten du gugan, eta huraxe azpimarratzen du Joxe Mari Lertxundik kaleratu duen azken liburuan. Gaz- terik basozain hasi eta Mariarekin Mariare- kin Laurgaingo basetxera joan zen bizitzera, berrogei eta hiru urteren ostean, ofizioa utzi eta herrira itzuli ziren arte.

Egungo bizimodua eta lehengoaren eten- gabeko talka jaso du, eta inguruko bazterrok zein ezezagunak ditudan ohartzeak lotsarazi egin nauela onartu beharra daukat.

Naturaz gozatzen ikasi dugun arren, ber- takoa benetan estimatzen duenak zaintzen baitu. Eta guk, Internetaren eta presaren seme-alabok, ajerik gabeko igandetean Ernio puntara bidea ikasi baina pareko tontorrak ezezagun ditugunok, badugu zer ikasia hor- rretan. Eta Lertxundiri erantzunez, berri- kuntzak hobekuntzak dakartzan arren, beti izango dira ezjakinak eta kontzientzia galdu- takoak.

**ALAZNE ARRUTI**



Liburuaren azala. AUSPOA

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

**ELEKTRIZITATEA**  
Ander Espasite  
943 831 774  
600 856 728  
anderexpoelektrizitatea@gmail.com

**zkue**

Tf: 943 130 438

**zkue**

**Desatascos LASTER**

Hodi-libraketa  
Garbiketarik presio handiko urarekin  
Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa  
Hodien, turbidien eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin  
Uholde urak ateratzea  
Ezkatuko kuxatzen detekzioa

688 886 536  
desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascoslaster.com

24 Ordu

Sagar erreka 21-A • 20590 Soroluze  
Abaromendi beja 3 • 20810 Orrio  
Tel: 943 751 431

**Zaragueta Herri Eskola Orrio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083  
FAX: 943 571 190  
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
ABESLARI, 1  
20810 ORRIO

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**urbide**  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4  
20800| Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es

**ORIA hortz klinika**

Orrio Hartz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.  
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorritzean sor daitezkeen arazoak.

Aranzale kalea, 63 behea  
20810 ORRIO  
Tel.: 943 83 36 45

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiasjavier@yahoo.es  
20810 ORRIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA- ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALOKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEBENTZAKO ZERBITZUA

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**

Pelotari 5, Orrio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**azkue**  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orrio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

# Aiako lore exotikoak



Andrea Zipitria

**Gaztetan, Aiatik oinez joan ohi ginen Lore Berezien Azokara; panderoa eta trikitia hartuta, kantu kantari aritzen ginen, giroa alaitzeko.**

Aiako Landare Berezien Azoka aipatzean, txikitako oroitzapenak etortzen zaizkit burura, eta denak oso onak. Gogoratzen naiz txiki-txikitatik asteburu horretan Aiako hainbat ume —15 bat haur— eta, panderoa eta trikitia hartuta, autobusean jaisten gine-la azokara. Han ibiltzen ginen egun osoan, kantari eta panderoa zein trikitia joaz, giroa alaitzeko asmotan.

Landare Berezien Azokako arduradunak oso ondo tratatzen gintuzten, eta guk ere primeran pasatzen genuen, izan ere, abesteaz eta trikitia jotzeaz gain, antolatzaileek bazkaltzeko ematen ziguten han bertan.

Zertxobait koskortu ginenean ginenean, 12-14 urterekin, oinez joan ohi ginen Aiatik Iturranerantz, Agorregiko bidetik barrena

Ezin ahaztu gurasoek ematen ziguten aste-sariarekin oinez azokara joan, talo bat jan eta ondoren diru apur horrekin gurasoei landare bat —normalean kaktus bat aukeratzen genuen — eramaten geniela etxera. A ze oroitzapen ederrak!

Aiako Landare Berezien Azoka jendea erakartzeko festa polita iruditzen zait. Gainera, Aian ditugun era guztietako altxorrek erakusteko ekimen aproposa da. Munduko landare ugari ikusi daitezke; ezbairik gabe, jende asko erakartzen du Iturranango azokak.

Gainera, azken urtetan, Iturranen ez ezik, Aiako erdigunean ere hainbat postu jarri izan dira, bisitariei herrian bertan landareak erosteko aukera emateko.

Aiako herriarentzat urteko ezinbesteko hitzordu bihurtu da; ikusi ditut azken urteotan makina bat turista, Frantziatik edota Nafarroatik etorri direnak. Askok errepikatu egiten dute, eta honezkero beren egutegian data hau markatuta dute.

Aurten ere itzela izango da!



Eli Manterola

## Tokaio

Badira oso arruntak diren abizenak, eta auskalo zenbat izango garen bazter hauetan Manterola abizena dugunak.

Izen-abizen berdinak topatzea ere ez da hain zaila. Urrutira gabe, badut nik nire izen-abizen berdinak dituen lehengusu txiki bat herrian; izena bera diferente idatziagatik ere hainbat eta hainbatetan konfunditu gaituzte.

Postariak batarentzat zen paketea besteari entregatu zion batean. Mediku-hitzordua bertan behera uzteko deitu zuen nire *tokaiak* behin, eta nirea utzi zuten bertan behera uste gabe kontsultan. Karkararako zenbait etxeko-lan bidali zizkidaten erredakziotik duela gutxi emailez, baina mezua ez nuen nik jaso, beste Elik baizik.

Kalean elkartu ginen azkenean, barrez aritu ginen, eta segidan halaxe esan zidan lehengusu txikiak: txintxo ibili eta ez egin ezer arrarorik! Bestela ni izan naizela pentsatuko dute eta! Makina batek izango du tokaioren bat herrian edo inguruetan, eta ez dakit gurekin adina konfunditu izango ziren zuekin. Entzuna dut ebakuntza egin aurretik medikuek gaixoari galdetu egiten diotela, ea zein hanka duen hautsita, bada ez bada.

Gertatu izan omen da eta izen bereko beste gaixoren batekin konfunditu eta okerreko aldekoa operatzea. Gogoratu beharko diot traumatologoari eskubiko belauna operatu behar didala, ez badio dagoeneko beste Eliri deitu nire partez!

# “Gero eta gehiago miresten dut guraso haien ausardia”

## Joanito Beristain

Irakaslea

Maisu Joanito esan eta nahikoa da herritar askorentzat urte batzuk atzera egiteko. Ez da alperrik izan Ikastolako irakasle kasik sortu zenetik. 40 urtetik gora eman ditu Orion, 20kin etorri bazen ere beti bizarrarekin ezagutu dugu, eta ia beti irribarretsu. Bada Joanito Beristain jubilatuta da, Mikel Laboa lasaiago entzuteko eta Zarautzen Orioko kamisetarekin korrika egiteko denbora gehixeago izango du, berak zioen bezala, azkarrago joateko.

**TESTUA: RIKARDO UZKUDUN**

**ARGAZKIAK: INTZA UNANUE, IKASTOLA ETA KOLDO OLARIAGA**

### HASIERAKO URTEAK

**Kokatu gaituz lehendabizi. 1977an Zarauzko gazte bat Orioko Ikastola sortu berrian hasten da irakasle.**

Orduan Andu koinatua, Anjel Lertxundi, Zarauzko Ikastolako zuzendaria zen, eta hemengo ikasleek Orion egiten zuten haur hezkuntza eta Zarautzen Oinarrizko Hezkuntza Orokorra OHO. Baina Zarauzko Ikastola handitzen ari zen neurrian lekurik gabe geratzen ari ziren, eta oriotarrak OHO ere Orion ikasteko bidea egin behar zela ikusten zuten. Halaxe esan zidan Anduk, eta halaxe etorri zitzaizkidan bi guraso nire bila. Ezezkoa esateko aukera askorik ez zidaten eman egia esan, *bale* baietz nik, eta horrela etorri nintzen Oriora, eta orduan hasi zen nire 40 urteko historia.

### **Zein irakasle zeundeten orduan?**

Mari Carmen Arrillaga, Iñake Irastorza, Maribel Eizagirre eta Sagrario Olaetxea ordurako bazebiltzan, baina beste norbait behar zuten OHOk ikasketak legezatzeko, eta horregatik ekarri ninduten. Horrelaxe hasi ginen pixkanaka, Zarauzko Ikastolaren baitan, baina Orion. Egoera arraro batean, artean eskola legezatu gabe.

### **Inspektore bat etorri omen zitzaizun behin?**

Bai, Errastineko lokaletan geunden, eta atea jo zuen. Nik, norbait etorri ezker, lehendakariarengana bidaltzeko agindua nuen. Baina trantze horretan, eskola bat zela esan nionean, halaxe erantzun zidan: *Hik ba al dakik, benetan, zer egiten ari haizen? Hauek denak kartillik ez zeukatek. Hauek denak zer titulaziorekin irtengo dituk?* Ematen ari zaretena ez da legala. Nolabait esan nahi zuten jolasean bezala hari ginela haien etorkizunarekin. Nik, lehendakariarekin hitz egitera joateko esan nion. Horixe izan zen dena. Ez zen ezer apartekorik gertatu. Handik ez dakit zenbat urtera lortu genituen legez ari ginenaren kartillak. Bitartean, gure seilua “katekesi eta haur kultura” izan zen.

Alde horretatik, gero eta gehiago miresten dut guraso haien ausardia, egoera hartan apustu hura egin izana. Zarauzko gazte bat etorri eta haren eskutan uztea beren seme-alaben ikasketak. Gaur egun, ez dakit horrelako zerbait egingo litzatekeen.

### **Zer oroitzapen dituzu lehenbiziko urte haietaz?**

Oso-oso politak. Gaur egundik ikusita, gaztetan egin daitekeen zerbait bezala ikusten dut, inozentzia hartan







Pagoetan 1974an jaiotako neska mutilekin.

egindakoa. Garaia ere halakoa zen, Frankismotik atera berriak, herrigintzan aritzeko ilusio handia zegoen.

Horrela, urtez urte, gela bat gehitzen joan ginen. Irakasle gazte gehiago etorri ziren, nolabait esateko, pentsaera pedagogiko desberdinekin. Horrek kezka bat sortu zuen gurasoen artean, eta bateko eta besteko, zenbait irakasle beste leku batzuetara joan ziren. Hiru bat urte horrela igaro ondoren, ezegonkortasun horren aurrean, gu baino eskarmentu handiagoa zuten irakasleak behar genituela pentsatu genuen. Horrela etorri ziren Demetrio Esnaola eta Mikel Haranburu, ikasketak bukatu berriak zituen Belen Arrietarekin batera. Irakasle horien etorrerak beste gorputz bat eman zion Ikastolari. Ordurako Demetrio Zarauzko Ikastolan ibilia zegoen, eta bere heldutasuna eta esperientzia behar genituen.

Hortik aurrera Ikastola urtez urte hasten joan den proiektu egonkor bat bihurtu zen.

**Eta batetik bestera, lokalez lokal, hasi zineten.**

Bai. Urtero gela bat gehiago izatean, leku berri bat gehiago behar genuen. Zer libratzen zen, soto edo dana dalakoa, hura hartzen genuen. Zaraguetarentzat eskola berria egin behar zenean, Orioko Udalak, bi eskolengan pentsatuz, proiektua gain-dimentsionatu egin zuen. Zaraguetakoek hondartzara joan zirenean guri ibai ondoko eskolako eraikin erdi bat laga ziguten. Lehen urtetako borrokak dirua lortzeko eta lokalak lortzeko izan ziren. Gabonetako zozketak, musak, tonbolak...

**Izan al zenuten inoiz kobratzeko arazorik?**

Behin ere ez. Esan beharra dago hori ere, ekonomiaren kudeaketa beti oso ona izan dela Orioko Ikastolan. Dirua oso ondo zaindu da, eta irakasleok, zenbaitetan, baldintza kaskarretan aritu behar izan badugu ere, moldatu izan gara.

“Publiko edo pribatu izaten jarraitu erabaki behar zenean berebiziko garrantzia izan zuen bideragarritasun ekonomikoak.”

“Nire aitak esaten zidan gu ere gari pilan hasitakoak ginela.”

“Egunero milaka leiho irekitzen zaizkigu manipulatuak izateko.”

Eta kudeaketa on horrek eragin handia izan zuen 1993an publikazio legea etorri zenean. Publiko edo pribatu izaten jarraitu erabaki behar zenean berebiziko garrantzia izan zuen bideragarritasun ekonomikoak.

### **Horrextaz hitz egin nahi nuen. Nola bizi izan zenuen egoera hura?**

Gogorra izan zen. Nire kasuan, momentu hartan, publikatzearen aldeko apustua egin behar genuela ikusten nuen, batik bat, etorkizuneko bideragarritasun ekonomikoagatik. Legeak jartzen zuen markoaren arabera, Orioko Ikastolak ia ezinezkoa zuen ekonomikoki bizirik jarraitzea. Lerro bakarra genuen, ikasle askokoa, baina lerro bakarra, eta DBH ez ziguten emango lerro bakar batekin. Haien asmoa eskola txikiei LH6 arteko baimena ematea zen, eta horrek bi maila galtzea zekarren, OHO 7.na eta 8.na. Are gehiago, legearen arabera 25 ikasle baino gehiagoko lerroak ez zituzten onartuko. Horren arabera, eta guk gelako 25 ikasle baino gehiago genituen ez baina bi lerro izateko kopurura iristen ez ginenez, Ikastolak txikitu beharra izango zuen. Legeak muga handiak jartzen zituen, eta guk ikusten genuen Ikastola atzeraka joango zela legea aplikatuz gero. Gero, ez zen horrela gertatu.

Beste batzuk, ordea, esaten zuten ez zela legea aplikatuko, beldurra sartzeko zela. Azken finean, larri zeuden Ikastola askok publikatzeko bidea hartu zuten, eta besteek ez. Esan beharra dago baita ere, mesfidantza handia zegoela Hezkuntza sailarekiko. Proposamen hori alderdi abertzale batengandik etorriko balitz beste zerbait izango zatekeen. Baina, orduan, Hezkuntza saila sozialisten esku zegoen, eta alderdi abertzaleek ez zuten postura jakinik hartu lege honen inguruan. Herri bakoitzaren esku laga zuten erabakia. Saltsa handia zegoen. Guk zorrik ez genuen, baina patrimoniorik ere ez. Egoera horretan, Orioko bi alderdi nagusienak, EAJ eta HB, sare publikoan ez sartzearen alde agertu ziren. Gainera, agindu zuten, Ikastolari ez zitzaiola dirurik faltako. Ikastola ez zela pikutara joango diru faltagatik. Behar zen hori Udalak jarriko zuela.

Berme horrekin, guraso gehienek erabaki zuten geunden bezala jarraitzea, eta hori ere, oso ulergarria zen. Azkenean, legea aplikatuko ez zela ziotenek arrazoi izan zuten, eta bitarte horretan alderdien babesa zegoenez, bere horretan segi zion Ikastolak. Zentzu horretan, esan beharra dago, momentu batzuetan babes hori kendu nahi izan zaiola Ikastolari, eta hori ez da bidezkoa izan. Ezin dena da erabaki bat hartzera bideratu eta gero babesa ukatzea, legeak behartzen ez zuela eta. Legalki ez zeuden behartuta baina moralki bai.

Guri, gure aldetik, erabakia onartu eta txipa aldatzea tokatu zitzaigun. Alde horretatik, ez zen erabaki ideologiko baten gorabehera izan, esan dizudan moduan, zalantzazko bideragarritasun ekonomikoa batena baizik.

### **Orioko Ikastola publikoa izan al da?**

Publikoa nola ulertzen den, baina nik uste dut Orioko Ikastola baino publikoago izaten zaila dela: Ez dut inor



**Errastineko lokaletan eman zituen bere lehen eskolak.**

ezagutzen hartu ez dugunik, era guztietako jendea hartu izan dugu, edozein momentutan, eta kuota oztopo izan ez dadin beka sistema bat sortu genuen.

Kudeaketari dagokionez, Orioko Ikastolak gurasoen papera oso-oso garrantzitsua izan da, betidanik.

### **Beste Ikastoletan baino gehiago?**

Bai, gehiago esango nuke. Bueno, ezin da orokortu, baina egia da zenbaitetan zuzendariek asko agintzen dutela. Orion ez hainbeste. Orion zuzendariaren gainetik gurasoen batzordea egon da beti. Horrek tentsioak handiak sortu izan ditu, baina esan beharra dago, baita ere, batzordeak markatu izan duela jarraitu beharreko bidea. Aldi berean, azpimarratzekoa da kolore desberdinetako jendea egon dela batzordean, oso irekia, dinamikoa eta potentea izan dena. Alde horretatik ere, hori baino herrikoia egoa izatea zaila da. Zentzu horretan, lege berri bat etorriko balitz uste dut Orioko Ikastola hor gongo litzatekeela, bokazio hori du eta.

## **HEZKUNTZA**

### **Asko aldatu al da hezkuntza 40 urte hauetan?**

Izugarri aldatzen ari da. Aldaketa horretan Informazio eta Komunikazio Teknologiek IKTek sekulako eragina dute. Beharbada, gutxiegi hausnartu da duten eraginaren inguruan. Baina errealitatea da hor daudela, eta ez bakarrik eskolan, baita eskolatik kanpo ere. Aldaketa horren aurrean, irakasleoi egokitzea tokatu zaigu, aurreikusiz eta prestatuz.

Gure garaian buruz ikasteari izugarritzko garrantzia ematen zitzaion, gaur egun era guztietako informazioa eskura dute, badirudi kasik ez dagoela ezer memoriaz ikasi beharrik. Aldi berean, ordea, guk jasotzen genuen informazio hura bahe batzuetatik pasata zetorren, fidagarriagoa zen. Gaur egun ez daukate hori, bilatzaile batean jarri eta baliozko informazioa jasotzea oso-oso zaila da. Horretan trebatzea tokatzen zaigu, eta horrek sekulako lana eskatzen du: sarean ez galtzea oso zaila da. Desinformazio hori da nik ikusten dudana arriskurik handienetakoa, eta ez bakarrik hezkuntza mailan, baita politika mailan ere. Egunero milaka leiho irekitzen zaiz-



kigu manipulatuak izateko.

Momentu honetan irakasle edo guraso batek baino ia indar gehiago dauka *youtuber* batek. Gainera, zer transmititzen ari den ez gara enteratzen, ez dugu kontrolatzen. Ni inoiz ikasleekin sartu izan naizenean zertan dabiltzan jakiteko ikaratuta geratu izan naiz. Gurasoen eragina eta eskolarena gero eta txikiagoa da. Adibide txiki bat, lehen euskal kantuak ezagutzen zituzten gutxi gehiago, orain kasu ale batzuk kenduta, batere ez. Famili giroan ematen zen transmisioa galtzen ari da. Nire kezka nagusia informazioarekiko jarrera hori da gaur egun.

**Ez al daude, aldi berean, hiperbabestuta gaur egungo ikasleak?**

Bai, baina gogoratzen naiz nire aitak esaten zidala gu ere gari pilan hasitakoak ginela, ugaritasunean hasitakoak. Egia da, nahi duten guztia eskura dutela, baina guk ere, lehen egiten ez zituzten gauzak egiten ditugu, kanpora afaltzera joan, esate baterako.

**Baina zenbait gurasok, irakasleen aurrean ere, beti jotzen dute euren seme-alabak babestera?**

Bai horretan bai, horretan aldatu da. Baina hori ere denean aldatu da. Mediku batekin hitz egiten baduzu, esango dizu paziente asko ia-ia diagnostikoa eginda etortzen zaizkiela, ordu erdi baten interneten aurkitutako informazioa bizitza oso karreraren ikasitakoaren parean jarritz. Hor badago errespetu edo konfiantza falta bat.

Dena den, egia da baita ere, guraso batzuen portaera orokortu egiten dugula, eta gehienek ez dutela horrela jokatzeko.

**Hitz egin dezagun segregazioaz. Bistan da Orion ere etorrikin gehienbat Zaraguetara joaten direla?**

Segregazioa saihesteko horretarako dauden komiteek funtzionatu beharko lukete. Eta galdera da: Funtzionatzen al dute? Ikastolan behintzat, nik dakidala, inori ez zaio aterik ixten. Inork ez badio besterik egitera behar izaten bakoitza nahi duen tokira joango da.

Ez da kontu erraza, naturalki bakoitzak bere antzekoengana biltzeko joera du, eskolatik kanpo ere ikusten da hori. Gainera, integrazio lanetarako baliabideak oso oso urriak dira, batere ez esate arren. Ordu oso-oso gutxi ematen dizkigute, adibidez, etorri berriei hizkuntza errefortzuak emateko.

Momentu honetan kontua dagoen bezala ikusita, ikusita Frantzia, Belgika zer gertatu den, administrazioa oso gaizki egiten ari den zerbait da. Hemen ez dira neurriak hartu, eta neurriak hartzeko dirua jarri behar da.

**AZKEN URTEAK**

**Nola bizi izan dituzu azken urteak?**

Azken urteak oso-oso ondo joan dira. Ez zaizkit batere luzeak egin. IKT-en ardura hartzeak oso aktibo eduki nau, eta hori oso positibotzat jotzen dut. Talde oso ona izan dugu, eta oso ondo konpondu izan naiz lankideekin,



1991 Lintzako Aterpetxean. Mikel Laboa imitatuz esnatzen zituenekoa.

giro ona izan dugu. Ez daukat saltzeko.

**Ofizioa maite izan duzu, ezta Joanito?**

Bai, bai... asko gustatu izan zait. Ikasleekiko harremana gustukoa izan dut. Ikastola txikiagoa zenean, ikasle guztiekin geneukan harremana estuagoa zen. Ikusi izan dudana da azken urteotako harremanak ez direla hain intentsoak izan, baita ere, lehen oinarritzko heziketa osoa elkarrekin egiten genuelako. Denen berri jakiten genuen, zirenak eta ez zirenak. Orain eskola handitzean hori galdu egin da, batzuentzat txarrerako eta besteentzat onerako.

**Zerk pozten zaitu gehien?**

Ikasle ohiekin elkartzeko, eta beren ibilbidean zerbait egin dugula sentitzeak. Ordu txikitik, edo mendian topatu izan naizenetan, adibidez. Gauza triste bakarra aipatzekotan, zenbait gurasoekin gertatu izan zaigu. Egunen batean, ikasleek zerbait egin eta gurasoak arpegia ateratzen zietenean, denbora pasa eta ikasleekin adiskidetu egiten ginen, baina gurasoekin harremana hoztu egiten zen.

**Parranda handia egin omen zenuten erretiroa ospatzeko egin zenuten afarian. Badakizu, herri honetan berehala jakiten da guztia**

Kar, kar, kar. Bai, gustatzen zaigu, eta luzatu zen pixka bat kontua.

**Geratu zaizu zerbait esateko Joanito?**

Bada, eskerrik asko. Badakit ez genuela denekin asmatuko, eta asmatu ez dugun horiei barkamena eskatu nahi nieke, eta gainontzekoei topatuko garela hortik. Oriotarrei buruzko oroitzapen politikak izango ditut.



## IZARRA ELEKTROGAILUAK

**12 HILABETE INTERESA %0**

**HILABETE MONETAN TELEBISTETAN ESKANTZAK**

**OH!!!**

ZANUSSI  
TOSSIMO  
BOSCH  
Teka

Etorri gure eskaintzak ezagutzera

Eusko Gudari, 44 · Tel. 943 83 38 81 · 20810 Orio (Gipuzkoa)  
izarraelectrodomesticos@gmail.com

*Mada da osagarriak*

*...anda giza zahar!*

**Garbije Aragoi**

Herriko plaza, 8 · Orio · 635 706 265

**Gabon**  
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

**arkaitz taberna**

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 · 943 831 657

## ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuzak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe*

Ander Zinkomegi  
**667 740 279**

## ARISTERRAZU jatetxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

*egin zaitoz laguntzaille*

**Karkara**

## Usurbil Autoak

Zumortegi Industrialdea, Aitzearra kalea, 24  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)  
usurbilautoak@gmail.com  
Tel: 943 38 10 79

**SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA**

677 109 902 usurbilautoak@gmail.com

PANDA 334	TALENTO	GRABO 2
300X	SPORTAGE	SORENTO
STONIC	NARO HYBRID	

**niko taberna**

Karta · Pintxo tradizionalak  
Okindegia

Palata Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

## PERTSIANAK

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

*edertegia*

## ANTILLA

*jatetxea*

Abeslari kalea, 2 · Tel. 943 83 28 00

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA

**GELATTO**

943 578 176  
Herriko enparantza

**Izozki naturalak Opilak**

# "Finantza arloan lagundu nahi diet oriotarrei"

Luis Perez finantza aholkulariak bulegoa ireki berri du herrian. Oriotarrak, gazte zein helduekin lan egitera bideratu nahi du bere jarduera profesionala. Finantza arloan dagoen ezjakintasunaren inguruan laguntza emanaz.

## **Orain arte banku-etxe batean aritu zara lanean.**

Bai, nik Enpresaritzako Gradua ikasi nuen eta ondoren Finantza eta Kontabilitate Masterra egin nuen, bukatzean Nafarroako Rural Kutxan hasi nintzen lanean. Urte eta erdi leihatilan eta beste hainbeste bulegoan.

Han gauza asko ikasi ditut, baina aldi berean, banku-etxeek gauzak guztiz ondo ez dituztela egiten konturatu nintzen, aholkularitzaren arloari dagokionez.

Tarte horretan, nire kabuz, Europa mailako Finantza Aholkulari agiria lortu dut eta orain hango agiri gorena lortzeko bidean nago, EFP (European Financial Planner). Gipuzkoan zortzi pertsonak soilik dute.

Lanean nenbilen bankuan, aukera nuen bi urteren buruan zuzendari izateko, baina banku-etxe honekin hizketan hasi nintzen eta ikusi nuen gauzak beste era batera egin ahal zirela eta oso ezberdin lan egiteko aukera izango nuela, batez ere, nola aurrezten lagundu eta erakusteko.

## **Finantza Aholkularitza bulegoan zer zerbitzu eskaintzen duzu?**

Nik herriko jendeari lagundu nahi diot, informazio guztia eman. Oriotarrei bere banku-etxeekin lagundu nahi diet; hipoteka eskatzerakoan, edo beste edozein gestio egiteko. Ni finantzetako mediku modukoa naiz, bezero bakoitzaren egoera aztertu, eta helburuen arabera aholkatzen dut. Dirua instrumentu finantziero desberdinetan banatzea garrantzitsua da, kontu korrontean, fondoan... baina horretarako bezeroaren beharrak ezagutu behar dira: epe motzera, ertainera eta luzera.

Gaur egun kontu korronteek ez dute dirurik ematen,

ezta deposituek ere. Beraz, bezeroak urtetik urtera inflazioarekin erosmen-ahalmena galdu egiten du. Garrantzitsua da hori ez gertatzeko beste bide bat bilatzea. Banku etxeek, adibidez, diruari etekin bat ateratzeko asmoarekin fondoetan sartzea gomendatzen dute, baina European fondo aukera oso zabala dago. Orokorrean, jendeak gai honen inguruan ezagutza falta du eta, horregatik, erabakia banku-etxearen eskuetan uzten du, aholkularitza sakonik jaso gabe.

## **Zergatik Orion?**

Gertutasunagatik, konfiantza behar duen lana da hau. Helburua da bezeroekin jorratutako harremanak urte asko irautea. Ni hemengoa naiz, jendeak ezagutzen nau eta bulegora etortzen direnen nirekin egongo dira, ni izango naiz beti haien aholkularia. Banku-etxeetara joaten zarenean pertsona bat izaten duzu, baina langile hori ez da urte asko bulego berean egoten. Bezeroak behin eta berriz konfiantza hartu behar izaten du langile berriarekin.

Niri, gainera, bezeroak ezagutzea gustatzen zait, haien ingurua ezagutu, izaera... horregatik mugatu dut bezero kopurua, zerbitzuaren izaera pertsonalarengatik.

Askok pentsatuko dute ikerketa finantzario bat egi-teagatik eta ondoren aholku bat jasotzeagatik ordaindu egin beharko dutela. Baina ni kobratu gabe laguntzeko prest nago: pentsioak kalkulatzeko, herentziak prestatzen edo beste edozein gestioetan laguntzen.

## **Epe motzera duzun helburua herritarrei aholkatzea da, baina epe luzera?**

Luzera begira, banku-etxe ofizial bat bilakatzea da



# Finantza Aholkularia

helburua. Aholkularitza zerbitzuaren bitartez bezeroek nigan konfiantza hartzea espero dut. Lagundu egiten ditudala konturatuko dira, eta iruditzen zait bide horretatik, konfiantzazko harreman horrekin, gure bankura etorri nahiko dutela. Ofiziala bihurtu ahal izateko, bi pertsona izatea da beharrezkoa, horregatik nabil lankide bila.

Banku-etxe munduan ekintzailea izateko aukera ere bada eta garaia orain dela iruditzen zait. Kontutan izan behar da banku-etxeak bulegoak ixten ari direla eta badirudi bide bera jarraituko dutela. Orain da aurrera pausoa emateko garaia.

Gure bankua *mix* bat izango da, gaur egun ditugun hiru banku modalitateek dutenetik hoberena hartuz: banku tradizionaleko bulego fisikoa, banku onlineko baldintzak eta banku pribatuko formakuntza duen aholkulari pertsonala.

**Finantza Aholkularitza zerbitzuaz gain hitzaldiak eskaintzen dituzu dohainik.**

Bai, esan bezala nire helburu nagusia herritarrei laguntzea da, eta hitzaldien bidez, uste dut askok jakin nahi duten informazioa jakinarazten diedala.

Hurrengo hitzaldia maiatza hasiera aldean izango da, erretiroari buruz. 2011 eta 2013ko dekretuen inguruan hitz egingo dut, gehienbat jendeak gure pentsioetan duen eraginaren berri izan dezan.

Gainera, 2013ko atal bat aurten sartuko da indarrean. Kalkulu finantzario berri bat da, non kontutan hartuko den erretiroa hartzen duzun urtea eta orduko bizi-itxaropena. Guzti honek, eragin zuzena izango du kobratzea

tokatuko zaizun kopuruan. Jendeak informazio hori inoiz jaso ez duenez, ez daki zenbat eragin ahal dion norbere kasuari.

**Edozein momentutan joan daitezke herritarrak zure bulegora?**

Bai, baina hitzordua eskatzea eskertuko nuke. Azpeitia aldean eta Donostian bezeroak ditut, beraz, han ere ibiltzen naiz. Gehienbat ziurtatzeko etortzen direnean hemen izango naizela.

**Zure xede taldea zein adinetakoa da?**

Orokorrean adin guztietako bezeroei lagunduko nieke, gazte zein helduei, beti ere lehen aipatu dudana bezala, bakoitzaren egoera eta helburuak zein diren aztertu ondoren: etxe bat erosteko nola aurreztu erakutsi, lagundu, umeen ikasketetarako aurrezkia landu, erretiroa prestatu, etab.

Erretiroaren gaia azpimarratzea gustatuko litzaidake. Izan ere, gaur egungo erronka finantzario nagusia da, jubilatuek beren egoeren adierazpenekin erakusten diguten bezala. Gure bizitzaren ia laurdena jubilatuta igaroko dugu, eta egungo pentsioen egoera ikusita, garaiz hasi behar gara honetan pentsatzen. Nahiz eta urrun ikusi, zenbat eta lehenago aurrezten ikasi, hobe.

## Luis Pérez

Balea Kalea 2, behea

Tel. 629 97 05 69

[luisperezachega@gmail.com](mailto:luisperezachega@gmail.com)





ORION 20



## "Bizitzak erdigunean"

Egun jendetsua izan zen Emakume Langilearen Nazioarteko eguna. Orioko Xaltxerak Mugimendu Feministak antolatutako egitarauak herriko emakumeak kalera atera zituen protesta egitera. Goizean goiz, abiatu zuten eguna Bikamiotan hasita diana zaratatsua egin baitzuten herrian barrena. Jarraian Emakumeen Eguneko murala margotu zuten frontoi inguruan, jai giroan, 'Bizitzak erdigunean' lelopean. Iluntzean, jendetza bildu zen manifestazioan. Balea soziedadean egindako emakumeen afariarekin amaitu zuten aurtengo martxoak 8a.

Martxoak 8





019



txoak

3 CREBA FEMINISTA







"Konturatzera nire  
negozioa dut eta  
bertatik bizi naiz"

Pole Dance-a bidelagun izan du Irati Agirrek azken urteotan. Indarra eta malgutasuna erabiliz, korporalki zein artistikoki adierazteko aukera eman dio barraren inguruan akrobaziak egiteak. Aldi berean, **polita eta indartsua sentitzeko ahalmenak konkistatu** zuela aitortu digu.



“Maite dut Orio, baina atera egin nahi nuen, mundua ezagutu.”

“Kirol asko ezagutu ditut. Bat berak ere ez nau honek beste bete.”

## TESTUA: INTZA UNANUE ARGAZKIAK: IRATI AGIRRE

2006an Batxilergoko ikasketak amaitzearekin batera, Oriotik atera eta Eskoziara joan zen Irati Agirre ingelesa ikasteko asmotan. Orduz geroztik, joan etorrian ibili da jaioterrira orain lau urte Sabadellen lur hartu, eta bertako egunerokotasunean murgildu zen arte.

Beste asko bezala, jende berria eta kultura eta bizitzeko era desberdinak ezagutzeko helburuarekin atera zen herritik bidaiatzera. *Herri txikietan konturatu naiz bi eratako pertsonak daudela. Batetik, herriaren monotonian geratzen direnak gustura daudelako eta bestetik, itota sentitzen direnak. Ni oso gustura nengoen herrian, maite dut Orio, baina atera egin nahi nuen, mundua oso handia da eta iruditzen zitzaidan oso tristea litzatekeela ezagutu gabe geratzea*, dio Iratik. Ingelesa ere jakin gabe abiatu zen Eskoziara. *Beti izan naiz horrelakoa, joan eta egin. Gero bidean aurkitzen ditut soluzioak.*

Hasierako asmoari jarraika, bizitzeko era desberdinekin topo egin badu ere, edozein lekutan bizitza berbera egiteko aukera izan du urte hauetan guztietan. *Australian edo Eskozian oso desberdinak dira erlazioak, jendea hotzagoa da, jatorduak ere desberdinak dira, eguraldia... baina edozein lekutan, azkenean, betiko bizitza berdina egin dezakezu. Bakoitzak ematen dio kalitatea bere bizitzari.*

### Fusioaren magia

Hara eta honako bidean, beti lagun izan du kirola, askotariko modalitateen irakasle izan da Zarauzko Kiroldegian, eta bizitza osoan probatu ditu kirol ezberdinak. Tartean, Pole Dance-a. *Aurkikuntza ikaragarria izan zen niretzat. Ezagutu nuenean ikusi nuen benetan indar handia behar dela, eta gainera, zure buruarekin ondo sentiarazten laguntzen zaituela. Probatzen hasi bezain pronto gustua hartu nion. Kirol asko ezagutu eta egin izan ditut baina ez dut ezagutu bat bera ere hainbeste bete nauenik.*

Kirol modalitateen barruan, salsa eta bestelako dantzak egitean gorputzaren figura asko aldatzen da, *polita sentiarazten zaitu horrek*. Pole Dance-a ezagutu zuenean, sentitzeko era hori indarrarekin fusionatzen zela ohartu zen *ahalduntze puntu bat edo ikusi nion alde horretatik, emakume bezala indarra erabiltzen da mugimendu harri-garriak egiteko, horrek konkistatu egin ninduen*. Kirol honek korporalki zein artistikoki adierazteko aukera ematen du, horrez gain, indar eta malgutasun handia behar da.

Pole Dance-ak hainbat diziplina ezberdin ditu bere baitan. Alde batetik, Pole Art dago, artistikoena da, eszenografiak garrantzia berezia du modalitate honetan eta dantza koreografiak gehiago sartzen dira, antzetu egiten baita, barrako akrobaziekin batera.

Bestetik, Pole Sport dago, indarra eta malgutasuna lantzen dira bereziki diziplina honetan, Irati Agirre modalitate honetan aritzen da. Eta hirugarrenik, Pole Dance-a,





denek striptesa gisa katalogatzen dutena. Nahiz eta azken modalitate honetan takoiekin egiten diren akrobaziak, kirol munduan, bat gehiago izaten jarraitzen du, akrobazia horiek egiteko indar handia behar baita.

### Kirola ogibide

Pole Dance-a egunerokotasunaren parte bilakatu eta 2017an, lehenengoz, txapelketen mundura egin zuen salto Bartzelonan jokatu zen Arnold Clasic Europe kirol azokan. Ez zen, ordea, esperientzia ona izan kirolariarentzat. *Jende asko zegoen begira, eta beldur eszenikoa sentitu nuen, disfrutatu beharrean txikia sentitu nintzen. Jokatu nuen bigarren txapelketa otsailean izan zen, oso beste era bateko lehia zen hura. Pole Dance-a Olinpiar Jokoetara iristea nahi dutenez, horrelako txapelketa ofizialek, jada, arau zorrotzagoak dituzte. Gogorra izan zen, edozein hutsengatik puntuak kentzen dituzte: hankak irekitzerakoan gradu zehatzak ez lortzeagatik, ilea aurpegian edukitzeagatik, ipurdia ikusteagatik, mailotako osagarriak lurrera erortzeagatik... Baina esperientzi moduan oso polita izan zen niretzat, desberdina.*

Txapelketak alde batera utzi behar izan ditu, ordea, kasualitate baten bitartez, orain hiru urte, bere Pole Dance-ko eskola propioa irekitzea erabaki zuenetik.

*Sabadellen bizi nintzela, eta Pole Dance-ko ikasten nabilela, jakin nuen bazegoela eraikin bateko hirugarren pisu batean gimnasio zahar bat, lau katu joaten zirena. Hango nagusiarekin hitz egin nuen, eta alokairu baxu baten truke Pole Dance-ko eskolak ematen utzi zidan. Arratsaldeetan ordubetez egoten ginen, sei barra jarri eta kendu ibiltzen*

*nintzen egunero. Ordainetan, pilateseko klaseak ematen nituen, kobratu gabe.*

Urte bete egin zuen lanean eta jabeak gimnasioa uztea erabaki zuenean, Agirrek erosi zuen, *bi aldiz pentsatu gabe*. Bi urte bertan egin zituenean, beste hobeago batera salto egitea erabaki zuen; hiru metroko sabaia zuen lokalera aldatu zen, egoera hobean aurkitzen zenera. *Beti bezala hanka sartu eta aurrera egin nuen asko pentsatu gabe.*

Uda honetan urtebete beteko du gimnasio berriarekin. *Lan handia izan da hau sortzea, paper asko, tasak... baina oso gustura nago, geroz eta bezero gehiago ditut. Konturatu gabe nire negozioa dut eta bertatik bizi naiz.*

### Sakrifizioa: hazitik loratzera

Kirol guztiek bezala Pole Dance-ak ere badu bere exijentzia. Agirrek, hasi zenetik, astean behin soilik entrenatu izan du, ordu eta erdiz. Horrez gain, sarri joaten da gimnasioa gorpuzta lantzera. Orain, astean behin beste akademia batera joaten da, gehiago ikasten jarraitu eta ikasleei erakusteko.

*Astean behin entrenatzea nahikoa ez dela ematen badu ere, kontutan izan behar da denbora guztian gorpuzteko pisua altxatzen gabiltzala, indar handia behar da horretarako. Nahi edo ez indarra hartzen zoaz, aldaketa ikaragarria egiten da denbora gutxian.*

Hala ere, hobetze prozesua pertsona bakoitzaren araberakoa dela dio Agirrek. *Inoiz kirolik egin ez duenari gehiago kostatuko zaio barran bere burua mantentzea, pazientzia behar da. Batzuk lehenengoan goraino igotzen*



“Indar handia behar da denbora guztian norbere gorputzeko pisua altxatzeko.”

“Bete egiten nau nik sentitu dudana ikasleen begietan ikusteak.”

*dira, besteek hilabete osoa behar izaten dute horretarako.*

Saioetan barraren inguruan forma eta koreografia berriak frogatzen dabilen bitartean, grabatu eta sare sozialetan partekatzen ditu sarri.

*Bideoak ikustean askok pentsatzen dute ezinezkoak direla egiten ditudan akrobaziak. Nik ere hasieran hori us-ten nuen. Baina kirol honek erakutsi didana da saiatzen garenean, lehenago edo beranduago, emaitza azaleratzen dela, figurak eta akrobaziak ikusten hasten diren momentua benetan polita da, sentitzen den satisfazio pertsonala ikaragarria da.*

Atzera begiratu eta lau urte hauetan lortu duen denaz konturatzen da Irati Agirre. Kirola probatzen hasi zene- tik, bere akademia propioan lan egin arte: *Bete egiten nau nik Pole Dance-ari esker sentitu eta lortu dudana guztia, orain, nire ikasleak direnen begietan ikusteak, nolabait, niri esker.*



emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



50eko dekoartea familia egarria sartelarik  
Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889  argine/jantziak



**TXUKUN**  
**LORAZANTZA, S.L.**

Tel. 660 332 756 · 679 428 851

Lorezaintza  
Mendiko lanak  
Indusketak  
Itxiturak  
...



[txukunlorazantza@hotmail.com](mailto:txukunlorazantza@hotmail.com)



**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,  
txekorria, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



Tel. 943 83 31 03

**ITZIAR KIROLAK**

Reebok  **ALTUJ**  **trang@world**  
adidas  **B**  **new balance**  **crocs**  **CMC**  **STORE**

le apaindegia

**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO



**KORTABERRI**  
arotz lanak

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

[kortaberri.arotza@hotmail.com](mailto:kortaberri.arotza@hotmail.com) 665 70 33 47

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

[fer.uranga@euskalnet.net](mailto:fer.uranga@euskalnet.net)  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

[itzilizaso@gmail.com](mailto:itzilizaso@gmail.com)  
Tel: 943 83 07 84



**Lizaso Dekorazioa**  
Eusko Gudari, 48 20810 Orio

**RUNNING TALDEA**

Hasiberri eta Teknikakzio mailak.  
Pausoz pauso gaintu zure markak.  
+info karelaiko harreran.



**BPXport**

BODEGAS



9400 BANDO & 43800  
Tel/Fax 943 00 91 58  
[www.bodegagailur.com](http://www.bodegagailur.com)  
Arabar Erriza

**ZUDUGARAI**



Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 80  
Fax 943 83 50 52  
[baholizudugarai@euskalnet.net](mailto:baholizudugarai@euskalnet.net)  
[www.baholizudugarai.com](http://www.baholizudugarai.com)



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
[orio@ikastola.net](mailto:orio@ikastola.net)  
[www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net)



[www.fontaneria-fontana.com](http://www.fontaneria-fontana.com)

- Komun eta sukaldien erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujentzia kendu eta duta jartzea
- Zuru erradiazioa

**fontana**  
iturgintza

Plaza Endala Nº1, 20810 - Orio  
[fontana-ju@hotmail.es](mailto:fontana-ju@hotmail.es)  
943 539 888 • 661 262 828

ITURGIJENTZA • GASA • BERGARAIK



serbitzu teknikoak  
24 ordu

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47





Gerra ondoren, herriko plazan, meza, koadroan Franco.

# Franco Langosta artean

## Oroimenaren kutxa

Azkenaldi honetan gorabehera eta atzera-aurrera asko darabilte Francisco Franco zenaren gorpuzkien kokapenarekin. Sanchezen Espainiako gobernuak erabaki zuen, Memoria historikoaren legearen arabera, Franco ezin zela egon Erorien haranean hilobiratuta; eta, beraz, handik atera eta beste norabait eraman behar dela. Tolosako inauterian ereleku handi samarra hartu dute Francoren hezurrek.

1936ko gerra bukatu eta 10 urtera, 1949ko abuztuaren 13an, Orioko Udalak, gainerako udalek bezala, udalbatzarrean, Francoren aldeko aldarrikapena egin zuen, gure herriak hari omen zion miresmena eta maitasuna adieraziz eta Espainiako Caudilloa Udalerriko Ohorezko Alkate izendatuz.

Guk dakigula, Franco ez zen sekula Orion izan; hala ere, Orioko bizilagun askok izan zuten nolabaiteko harremana harekin. Diktadoreak udako oporrak Donostiako Aieteko jauregian pasatzen zituenean, herriko alkateak eta zinegotzi batzuek hara joan behar izaten zuten, hari bostekoa eman, argazkiak egin eta itxura pixka bat egitera. Orioko traineruak 1970, 71 eta 72 urteetan Kontxako bandera irabazi zuenean, diktadoreak Azor bere yatean eman zion bandera patroiarri, arraunlari bakoitzari bostekoa eman ondoren. Soldadu joan behar zuten hainbat gazte Francoren Azorrera destinatu zituzten, Ferrolen. Jeneralaren emaztea, berriz, Orioko altzari-fabrika eza-gunenera etortzen zen altzariak erostera, eta beste denda askotan bezala ordaindu gabe joaten omen zen, kontua Madrileko El Pardora pasatzeko esanda eta jakinda inork ez ziola pasatuko.

Franco hil eta 33 urtera, 2008an Orioko Udalak aho batez erabaki zuen diktadoreari Ohorezko Alkate izendapena kentzea, 1949ko akordioa baliorik gabe uztea; eta errekonozimendua adieraztea Orion gerra zibilean eta

militar haren diktadurapean erailak edo zapalduak izan ziren herritarrei.

Herritar batzuek ere ondo adierazi zuten Franco zenbat “maite” zuten. Orion, behin, gazte batek gauez San Juan Elizpe soziedadetik diktadorearen koadroa hartu eta putzura bota zuen, erriora. Ustezko egilea guardia zibilen Dikeko kuartelera eraman zuten; handik pasara handia hartuta atera zen gaztea.

Pasai San Juanen ere izan zen, ematen duenez, Francoren erretratoa uretara botatakorik. 1943an “delitu” horren akusaziopean salatu zituzten San Juango zazpi herritar: 1942ko maiatzean Nikolasa jatetxean bazkaltzen ari zirela, haietako norbaitek Francoren koadroa hartu eta langosten haztegiara bota omen zuen. Epaiketan, ustezko delituaren frogarik ez zelako, libre gelditu ziren auzipetuak.

San Juango akusatu haien artean oriotar bat zegoen: Serapio Gametxo Azpeitia. Gizonak jatorria Bermeoko familia batekoa zuen. Seguru asko, gerra aurretik Oriora arrantzan egitera etorria, 1936ko gerran Eusko Jaurlaritzaren Itsas Armadan gudukatu zuen.

Serapio familiarekin Oriotik Pasaia San Juanera joan zen bizitzera. Orion jaiotako haren alaba, Ramonita Gametxo, pilotari profesionala izan zen Bartzelonako frontoian, raketista; eta pilotari-izena ‘Orio’ erabili zuen. Bartzelonako egunkari bateko 1943ko iragarkiak honela zekarren hango frontoiko raketisten pilota-partiduen programa: *Hoy tarde: Eli-Eguia contra Donosti-Orio. Noche: Fermi-Julita contra Aris-Cantabria. Además otros partidos y quinielas.*

Oraindik ez dakigu non bukatuko duten Francoren hezurrek; baina Orion eta San Juanen batzuek aspaldi erabaki zuten diktadoreak ez duela tokirik ez koadro batean, ez inoren memorian, Orioko korrokoiek eta San Juango langostek aspaldi jan zutela.

# Karkara<sup>30</sup>urte

karkara.eus



Iñaki Iturain

## ***“Komunikazioaren teknologia berrien aroan, harritxintzarrek ireki zidaten atea”.***

**K**ARKARAREN 30 urteko historian, anekdotak asko. Iñigo Gaiton eta biok hitzordua genuen 2017ko gabonetan Angela Loidi Bizkarrondoren Donostiako etxean, elkarrizketa egiteko. Oriotarrik zaharrena zen orduan 101 urteko Angela. Ez ginen inoiz joan, abenduaren 23an hil zen.

2016an elkarrizketa egin genion Milagro Ariztimuñori Goretti Aranburu medikuak eta biok, 91 urteko andre jakintsuari. Baina Milagro berak esandakoak argitaratu baino lehen hil zen; haren hitzak ez dira plazaratu oraindik.

Iazko abenduaren leian, mendian nenbilela, egarriak San Martin ermita ondoko iturrira eramane ninduen. Paperak ikusi nituen atzealdeko atearen ondoan. Karkararenak ziren, bezperan banatutako aleetako batenak. Aurrena ikusi nuen orriak Sanikolas festen berri ematen zuten, nik idatzia zen. Konturatu nintzen paperak norbaiti balio izan ziola han sentitutako larritasunetik onik ateratzeko, ipurdia garbitzeko alegia. Baleko papera.

Lau egun lehenago, Karkaran geratua nintzen. Hiru t'erdia, kultur etxea itxita. Telefonoz deitu nuen, inork hartzen ez. Kultur etxearen atzealdera joan eta oiuhu egin nuen "Ainaraaaa". Ezer ez. Ozenago. Ezer ez. Lurretik hartxintzar bat hartu eta leihora bota nuen. Kale, hiru aldiz. Laugarrenak jo zuen kristala. Komunikazioaren teknologia berrien aroan, hartxintzarrek ireki zidan atea.

eta hamaika bitxikeria



Lore Berasaluze

***"Ekimen bat aukeratu beharko banu, Gazte Festek toki berezia dute nire oroitzapenean".***

**K**ARKARAREN balantzaren bi aldeak bete samar ikusi izan ditut, baina distantziagatik, agian, gris koloreko esperientzien aldeak goia jota du ia (zorionez ekarpenik egiten ez duena ezabatzeko gaitasuna du giza-garunak). Jabierrekin bat, makina bat aldiz egin dugu suhiltzailearena. Sua itzaltzera joan eta hauspoa eman dion piromanoa ere izan gara batzuentzat. Mangera gogor heldu eta ur gehiago botez erantzuten saiatu izan gara.

Esan moduan, bizitako momentu onekin geratuko naiz. Asko izan dira. Pila bat. Ikargarri pila. Mirianek bezala, detaile guztiekin gogoratzen dut nik ere Illarramendiko aldapa lehen aldiz igo zuten egun hura; lasterketa aurretik, txupetedun umetxoa atzean zuela behetik goraino igo zen txirrindulari gogotsu eta egoskor samar hura, tartean.

Ekimen bat aukeratu beharko banu, dena den, aurreneko Gazte Festek toki berezia dute nire oroitzapenean. Uretako lehen lasterketa hartan arranplatik atera ezinik geratu ziren piratak (a zer algarak haiei begira!); lau katu goizeko dieran, bonbo eta platioa hartuta Salatxo atzeko zirrikitu hartatik barrena... sekulakoa izan zen!

Halere, guzti guztiaren gainetik, Karkarako dinosaurioen (zu barne Patxi) ekarpenekin geratzen naiz!



# 21. korrika

# Orion e

## EGITARAUA:

### **Apirilak 3, asteazkena:**

- 18:30 'Txillardegiren Klika' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Salatxo aretoan.

### **Apirilak 6, larunbata:**

-16:30 *Hitz-pasa* jokoa: (euskararekin eta Korrikarekin zerikusia duten galderen jokoa) kultur etxean, Txurru-muski aisialdi elkarteak antolatuta, bi eskoletako LH3 eta LH6 arteko haurrei zuzenduta.

### **Apirilak 12, ostirala, ORIO KORRIKA!**

-11:00 Korrika Txikia herriko kaleetan barrena, bi eskoletako hurrekin. Bukaera Herriko Plazan emango zaio 12:00ak inguruan.

-19:00 Bertso-saioa Gabon tabernako tunelean: Orioko eta Azkoitiako bertsolariak: Iñaki Gurrutxaga (Orio), Egoitz Eizagirre (Orio), Unai Izagirre (Azkoitia) eta Ene-ritz Artetxe (Azkoitia).

-21:00 Afaria eta bertso zaharrak, Gure Etxea elkartearen. Entsalada eta gisatua. 15 euro.

Afalostean Errikotxiako kideek bertso zaharrak abestuko dituzte, Imanol Urkizuk gitarrarekin lagunduta. Afari-txartela alde aurretik erosi behar da kultur etxean.

**-13:47** Korrika iritsiko da Orioko plazara. Zarauztik barrena etorriko da eta Aginaga aldera joango da gero.



## OHARRAK:

**- 'Korrikeroak' apustua:** *Zergatik Ez* taldeko neskek Orioko plazatik aterako dira korrika Aginaga aldera, Korrikarekin batera, eta apustugileek asmatu beharko dute zenbat kilometro egingo dituen urrutien iristen denak.

## **-Bukaerako ekitaldirako autobusa:**

Urola Kosta eskualdetik autobusa antolatuko du AEK-k, Korrikaren bukaerako jai-ekitaldira joateko, Gasteizera, apirilaren 14an. Autobuserako txartela alde aurretik erosi behar da. Prezioa: 11 euro.

# egin Klika



KILOMETRO ZENBAKIA	LEKUKOALDAKETA	ERAGILEA
2024	Alto de Orio	ORAIN
2025	"Zuloa" kurba baino lehen	ARRAUNELKARTEA
2026	Aitzondo	TALAIMENDI+AEK
2027	Tren geltokiko rotonda	TXURRUMUSKI/GAZ TELEKUA
2028-1	Kutxi kafetegia	HARRIBIL+KARKARA
2028-2	Bikamiyoak	HERRIO+EH BILDU
2029	Udaletxea	GAZTETXEA/SALTX ERAK
2030	Gaztetxea	EAJ/TOKI -ALAI
2031	Oliden jatetxea	ZARAGUETA
2032	MN 634KM II kartela	IKASTOLA LANGILEAK

# KAIOA

Arropa  
Oinetakoak  
Osagarriak

Ametzain kalea, 8  
T 943 244 985  
ORIO (Gipuzkoa)

Zaparta kalea, 18  
55. Funtziko kalearekin elkarrekin  
T 943 021 154  
ZARAUZI (Gipuzkoa)

Ertzaia kalea, 10  
T 943 943 323  
ZUMAIA (Gipuzkoa)

Fons Babilha, 2  
T 943 282 375  
APELLA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

# Katu Horia

OHIGIAGORITZA KLINIKA

**ESTROPALARI, 10**  
20810 ORIO

LARRIAMIAR  
988 80 11 29

www.katuhoria.com

# OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak  
Lumbalgiak  
Artrrosia  
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,  
bentoneak, akupuntura,  
eskuzko terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**  
Aritzaga kalea, 11 Artea

# libe dietetika

elikadura aholkularitza

ORIO ELIKATZEA BIZI

eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ sarrera Arrantzale kaleatik ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com

# MENDIZABAL AROZTEGIA

Nearriko arnairak  
eta egerlarak

943 831 175      Altsani bidea  
645 708 491      Belfi-Aloia etxea  
mendizaroztegi.net      20810 Aja-Orio

www.podologia-oinarri.com

943 575 361  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio

# oinarri

PODOLOGIA ZENTROA

# ETXEKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA  
PARRILA

# BODEGON SARASUA

IRRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

# Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Endaia Enparantza, 1  
20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

# KOLON TXIKI

gitarisegia  
jutsuak

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

# SU KIA

TABERNA - JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPAE

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJA
- EGLUKARIAK
- OGIA

Tf. 943 832 128  
ARRAZMENDI 36, 1. BARRIO

ASADOR  
XIXARIO

Eusko Gudariak Kalea, 2  
Tel. 943 330 019 - ORO

# GARMENDIA

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak

info@garmendia.com

Tf: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

# ITZALA

kartetan jokatzeko  
apropoa

tel. 943 83 12 59

# kutixi

kafetegia  
GOSARI GOWAK

Arizaga 9, 20810 Orio  
Tf. 943 13 15 17

# Sinergia

fisioterapia & merkuztza

943 13 05 77  
685 71 85 95

- Lesioak: bihurduak, tendinitisak, zainfatuak, kontrakturak, hanka handituak, artrrosia, kirurgia osteko birgaitzeo, bizkor hezurreko arazoak, arnas gaitortasunak haur eta heduetan, lesio neurologikook, haurdunaldiraiko tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-o, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Ibai Ondo, 1, Barrio - Orio  
sinergiafisioterapia.com



## ORIOKO HERRI IKASTOLA



## “Oteizarekin zor bat dugu herritarrok”

**Iñaki Arrillaga**

Beñaten aitona eta Oteizazalea

Oteiza proiektua egin dugu LH2n. Bere biografiaren liburu bat egin eta bere obra aztertzen aritu gara. Iñaki Arrillaga, Beñaten aitona, etorri zaiugu Oteiza ulertzeko, maitatzera iritsi gara bufanda gorriko aitona.

**Zergatik dakizu hainbeste Oteizari buruz?**

Azkeneko urteetan asko interesatu zait. Bere arrakasta eta ospea ikusita bere lana aztertzen ibili naiz. Hala ere, gauza gutxi dakit, Oteiza oso pertsona konplexua zen.

**Non ikasi duzu Oteizari buruz?**

Liburutegira joan eta liburuak begiratzen ikasi dut dakidana. Zein obra egin dituen ikusi, zergatik egin dituen horrela jakin... Oteiza ulertzen ahalegindu naiz, oso zaila den arren.

**Zein obra gustatzen zaizu gehien?**

Esanguratsuenak euskaldunontzat, Arantzazuko apostoluak dira. Bere garaian garrantzi handia izan zuten, gauza asko puskatu zituen obra horrekin. Aurrera pausu handi bat eman zuen. Arantzazuko apostoluak 15 urte egon ziren lurrean botata ez ziotelako jartzen uzten. Oteizak obra ez zuela bukatuko uste zuen. Borroka bat egon zen, jende asko bildu zen bukatzeko eskatzen eta azkenean lortu zuten. Baina lan

esanguratsuenak kaxa hutsak eta kaxa metafisikoak direla esango nuke.

**Zuk Oteizaren obrak egin al dituzu?**

Bai, Oteiza oinarritzat hartu eta nire erara lan batzuk egin ditut. Kutxa hutsa oinarritzat hartu eta hura moldatuz egin ditut koadroak. Kartoiarekin eta burniarekin egin ditut lan batzuk, baita koadroak ere.

**Bai! Ikusi ditugu apostolu batzuk arraunlari eginda...**

Bai, hori da! Oteiza oinarritzat hartu eta nireganatu egin dut. Oteizari 14 apostolu zergatik egin zituen galdetzen ziotenean, askotan Orioko traineruko arraunlariak zirela esaten zuen. Nik apostolu arraunlariak egin ditut.

**Oriotar batek Oteizari buruz zer jakin beharko luke?**

Izugarrizko artista zela. Guk uste baino ezagunagoa da mundu guztian. Oriotarrok probetxurik atera ez diogun pertsona handi bat izan da. Herritik kanpo gehiago ibili da Orion baino. Mundu guztian daude Jorge Oteizaren obrak eta guk ez dugu Orioganatzeko ezer egin, horrek pena ematen dit. Oteizarekin zor bat daukagula iruditzen zait.



Olatz Aizpurua

## Beldurrak ez du balio



Argi dago klima-aldaketa gaur egungo arazo larrienetako bat dela; baina, benetan inportala zaigu? Lehenik eta behin, garbi izan behar dugu jadanik ezin dugula arazo hau saihestu, beranduegi baita. “Fear doesn’t work” argitalpenak dioen moduan, hainbeste irudi beldurgarriren ondorioz gainezka egin dugu, eta ondorioz, jada beldurrak ez du balio.

Klima-aldaketa berotegi-efektu artifiziala sortzen duten gasen isurketaren ondorioz ari da gertatzen (CO2, O3...), gizakiok isuritakoak, hain zuzen ere. Gainera, naturaren hainbat eta hainbat faktorek ere gure Lur planetaren egoeran gogor eragiten dute; tenperatura hoztea eragiten duten antizikloiak eta uholdeak, esate baterako. Eta zer egiten dugu gizakiok honen aurrean? Ba asko eta asko dira egoerari aurre egiten saiatzen ari diren erakundeak, Greenpeace, adibidez; baina tamalez, ez dira nahikoa.

Beraz, zer da hobe: balio gabeko beldur horrekin jarraitzea, ala erakunde horiekin bat egin eta etorkizun oparoago baten alde borrokatzea?

**Ezin dugu arazo hau saihestu, beranduegi baita.**

# Oriok behar du Kirol Patronatu bat?



Orioko jubenilak, herriko Mendibeltz zelaian futbol partida bat jokatzen. KARKARA

Gipuzkoako makina bat udalerrik dute Kiroletako Udal Patronatu bat; esate baterako, Donostiako, Zarauzko, Elgoibarko edota Azpeitiko Udalek.

Kiroletako patronatu bateko ohi-ko funtzioak, besteak beste, ondorengoak izaten dira:

- Mota guztietako kirol jarduerak antolatzea eta jardueren antolaketa bultzatzea.

- Instalazioak eraikitzea eta sustatzea.

- Kirol federatua sustatu eta jendea kirol-elkarteetan parte hartzerantz animatzea.

- Lehiazko eta ikuskizuneko jarduerak sustatzea eta hauei laguntza ematea.

- Hezkuntza fisikoa eta kirola ikastetxeetan irakatsi eta egin dadin jarduerak bultzatzea.

- Kirol instalazioen kudeaketa eta kontrola.

## Patronatu baten egitura

Kiroletako Udal Patronatuek hainbat langile izaten dituzte bertan lan egiten. Herri bateko kirol ekintzak eta beren sustapena ardatz dituen lan-talde edo giza egitura bat da kirol patronatu baten oinarria.

Esate baterako, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren kasuan, hainbat sail hartzen ditu udal erakunde horrek: zuzendaritza, harrera, giza baliabideen atala, kirol jarduerena, eta kirol instalazioen koordinaziorako eta kudeaketarako departamendua.

## Orio eta kirola

KARKARAKo zerbaki honen 'Udalaren Txokoa' atalerako, Orioko EAJ/PNV alderdiak *Orion Kirol Patronatu baten beharra* ikusten duten galdetu diete Udalean daude beste taldeei.

Orioko Udaleko webgunean ageritako bezala, Mikel Izquierdo da kirol eta gazteriako teknikaria. Web ata-

riko kirol sailean zerrendatzen dira: herriak dituen kirol azpiegiturak —Arraunetxe eta Karela kiroldegia esaterako—, Orioko kirol elkarten gida, herriko elkarteentzako Udalak eskaintzen dituen diru-laguntzak, eta kirol ekintzetara bideratutako udal lokalen inbentarioa eta beren egoera, besteak beste.

## Urtean, hamaika kirol ekintza

KARKARAK urtean zehar web atarian argitaratzen dituen albisteen inbentarioa egiten du urtero. Zerrenda hori aintzat hartuta, azpimarragarria da Aia eta Orioko orainkariaren webgunean plazaratzen diren albisteen %35a, kirol jarduerari lotuta dagoela: arrauna, futbola, softbola, eskubaloia, herri lasterketak, herriko kirolariak, e.a

Baieztaatu daiteke kirolak Orion presentzia baduela, baina Udalaren eskumena da Kirol Patronatu baten sorrera eta sustapena.



## EAJ/PNV

### Elkarlana oinarri hartuta

Egia da Orio, besteak beste, kirol munduan izandako istorioarengatik eta bertako kirolariek izandako ibilbidearengatik ezaguna dela. Kirol azpiegitura eta kirol talde ugari ditu. Ulertu daiteke hau guztia kudeatzeko Kirol Patronatu bat osatzea ideia ona izan daitekeela edo horrelako planteamenduak entzun izan ditugu. Orioko EAJko udal taldearen ustez, Orio herri txikia izanik ez dugu uste horrelakorik behar duenik gure herriak. Iruditzen zaigu gaur egungo eredia egokia dela, kirol mahairen bitartez elkarrekin elkarlana eta kolaborazioa bultzatuz. Herri txikia izanik, kirola egiteko aukera ugari dute oriotarrek, batez ere gazteek. Aniztasun hau eta kirol maila mantentzeko elkarlana bultzatzen jarraituko dugu.



## EH Bildu

### Lehentasunezko beharra?

Ez dago makila magikorik Oriok kirol mailan dituen gabeziak konpontzeko; borondatea eta lana dira horretarako giltza. Kirol-ekipamenduz oso ondo hornituta dago Orio. Gainera, kirol-elkarte guztietan boluntario ugari dabilta, ordainezinezko lana egiten dutenak, eta eskola-kirolean ere aipatzekoa da bi ikastetxeek egiten duten lana. Zorionak eta eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen lerro hauetatik. Udalak, ordea, zer kudeaketa, babes eta jarraipena ematen dio honi guztiari? Kirol-teknikari bat dugu, alor honi laguntza emateko, eta Kirol Batzordeak ere gertuko jarraipena eman beharko lioke gaiari; baina hori ezinezkoa da bilerak behar adinako maiztasunarekin egiten ez badira. Aurreko agintaldian kirol-elkarte guztiek osatutako mahia eratu zen, eta balio izan zuen elkar ezagutzeko, esperientziak konpartitzeko eta hainbat kontu adosteko. Agintaldi honetan, ordea, ezerezean gelditu da kirol-mahai hori. Kirol Patronatu baten beharraz eztabaidatu aurretik, ditugun baliabideak ahalik eta ondoen kudeatzea da gaur egungo lehentasuna.



## Orain

### Falta zitzaiguna!!

Orioko herrian dagoen kirol zaletasuna ez dago zalantzan jartzerik. Kirolariek eta kirolaren inguruan dauden elkarrekin eta hauek sortzen dituzten mugimenduak asko eta askotarikoak dira. Antolaketa erak modu desberdinekoak baita eta asko eredu garriak. Inplikazioak anitzak. Mundu bat bira eta bueltan. Mundu horren antolaketak, esperientzia trukaketak eta hobetzeko gogoak gune aproposa izan behar zuen eta horretarako sortu zen aurreko legegaldian Kirol mahaia, elkarrekin eta kirol guztiak gune baten batzeko eta bakoitzak bere eskarmentua, egoera eta etorkizuna azaltzeko. Dinamizazioa Udaletxearena izanda, berak izango zuen guztion informazioa eta esperientzia. Elkarrekin kezka eta zalantza argitu eta zailtasunetan bideak erraztu. Indartsu hasi zen eta ezerezean gelditu da. Zergatik? Orain beste ideia potolo bat!!! Falta zitzaiguna!!!



## PSE-EE

### Orio bezalako herri batean, ez du zentzua

Ez dakit zertara datorren kirol patronatu bat sortzeko proposamen hori, ez du inolako zentzurik. Zentzua du biztanle gehiago dituen herri batean, azpiegitura anitz eta kirol ekitaldi asko dituen, udalerritan, Irun edo Donostia kasu. Herri horietan kirol jarduera guztiak koordinatzea zaila da eta horretatik dute kirol patronatua. Gainera, Orioren kasuan, herrian eskaintzen diren hainbat kirol zerbitzu eta jardueren kudeaketa kanpoko enpresa batek eramaten du. Halaber, Kirol Mahaia egiten da Udalean, non kirol erakunde guztientzat diru-laguntzak eta bestelako prestazioak kudeatzen diren. Zertarako gehiago? Nahikoa diru gastatzen da kirolaren kudeaketan, orain Udak Kirol Patronatu bat sortzeko, horrek dakartzen lanpostuen sorrera eta bestelako gastuekin. Usurbilen egin zuten saiakera, eta azkenean bertan behera geratu zen, ez baitzen ez bideragarria, ezta beharrezkoa ere.



# Aiako Ardi Jolasaren mahai-jokoa, eskuragarri



Aiako Udalak pasa den udan Ardi Jolasa izeneko jolas erraldoia jarri zuen demaplazaren sabaian, eta orain mahai-joko formatuan argitaratu du. Aiako Ardi Jolasa herritarren artean ezaguna den Antzara Jokoaren antzekoa da, baina herrira ekarri dute jokoa, eta antzaren orde ardiak dira protagonista. Jokoak gaurko, atzoko eta antzinako Aiako pertsonaiak eta gertakizunak, eta herriko auzoak biltzen ditu.

Aiako alkate Nekane Arrizabalagaren esanetan, Aiako Ardi Jolasaren helburua da, modu atseginean herriko historia eta ondarea azaltzea; eta mahai-jokoak familia giroan herria

ezagutzeko aukera emango die aiarrei eta bisitariei, nabarmendu du. Izan ere, jokoarekin batera liburuxka bat argitaratu du Aiako Udalak, eta bertan laukitxo bakoitzean zer irudikatu nahi den azaltzen da.

## **Antzinatik, gaur eguneraino**

Eneko Sanz historialariak egin du Aiako Ardi Jolasa osatzeko dokumentazio lana. *Horretarako, Aiako Udaleko agiritegiko dokumentuak eta hainbat ikerlarik egindako lanak aztertu ditugu, Aiarekin zerikusia izan duten pertsonaia garrantzitsuak ezagutzeko.* Bertan agertzen da esaterako, Fermin

Gilisagasti XVIII. mendeko ainguragile famatua. *Horrek garaiko ontzigintza-ren teknologia hobetzea lortu zuen, Herbehereetan espiontza lanak eginda; bertan erabiltzen zituzten teknikak kopia eta bere burdinoletan landu baitzituen.* Gilisagastik mundua zeharkatu bazuen ere, Aiarekin harreman estua izan zuen beti, eta herrian bertan badago Gilisagastiren etxea bezala ezagutzen dena; *oraindik antzeman daiteke oso etxe noblea izan zela bere gailan.*

Bestalde, Aiako Ardi Jolasean garrantzi handia eman diote 2008tik Gizateria-ren Ondare den Altxerriko kobazuloari ere. *Altxerrin aurkitu zen labarretako artea berezia da bere aniztasunagatik.* Normalean inguruko haitzuloetan bisontek eta oreinak aurkitu izan dira, baina Altxerrin arrainen eta hegaztien margoak ere badaude. *Horregatik, Altxerriri merezi duen inportantzia eman nahi izan diogu, eta Altxerriko haitzuloan hasten da jokoa.* Iraganetik gaur eguneraino bidaia egiten du Aiako Ardi Jolasak, Aiako historian barrena. Horrez gain, Aiako Ardi Jolasean toki berezia dute herriko auzoek ere. *Izan ere, Aia ezin da ulertu auzorik gabe, eta auzo bakoitza jolasean irudikatuta egotea nahi izan dugu,* azaldu du alkateak. Aiako Ardi Jolasa 12 eurotan dago salgai Aiako Kultur Etxean.

## Kontzertua Orion

### Olatz Zugastiren kontzerturako sarrerak salgai, Kultur Etxean



Olatz Zugastik kontzertua eskainiko du maiatzaren 4ean, larunbatarekin, Orioko Karela Kiroldegian.

Gaueko 22:00etan hasiko da musikari hernaniarraren ikuskitzuna.

Orioko Udalak antolatutako kontzerturako sarrerak salgai dira dagoeneko herriko Kultur Etxean, 10 euroren truke. Kultur etxeko ordutegia ondorengoa da:

Goizez, 09:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara.



## Aiako Landare Berezien Azoka

### Apirilaren 27an eta 28a, 17.edizioa

Apirilaren 27an eta 28an, XVII. Landare Berezien Azoka egingo dute Pagoeta Natur Parkeko Iturrarango Lorategi Botanikoan. Urtero bezala, munduko txoko desberdinetako landareak ikusteko, eta nahi izanez gero erosteko aukera izango dute herritarrek.

Guztira 50 mintegik eman dute izena, eta bertaratutakoek kontinente guztietako landareak ikusi eta erosteko aukera izango dute bertan. Ekimena Iturrarango Lorategi Bolkanikoan izateak *izaera berezia* ematen dio azokari, antolatzaileen esanetan, *ingurua paregabea delako horretarako*.

Azokaz gain, bisita gidatuak eta hitzaldiak ere antolatu dituzte, landareak eta ingurumena ardatz hartuta. Jan eta edateko postuak ere jarriko dituzte, eta bertako produktua gastronomikoak ere erosi ahalko dira; haurren gozamenerako, jolasgunea egokituko da azokaren barruan.

Boluntario gisa lagundu nahi izanez gero, edo informazio gehiago lortzeko, 943 83 53 89 telefono zenbakira deitu daiteke, edo iturraran@gipuzkoamendizmendi.net helbidera idatzi.

## Zorion agurra

### Ongi etorri Izar!

Otsailaren 5ean jaio zen Izar Arrozpide Blanco. Aitzol eta Oiana gurasoak oso gustora daude familiako kide berriekin eta zer esanik ez Oinatz eta Amets anaiak.



### Kirola

**Orioko zortzikoak Londresen estropada jokatu du bihar** Londresko 'Head of the River Race' estropadan izango da bihar, larunbata, martxoak 30, Orio Arraunketa Elkarteko senior mailako gizonen zortzikoak. 1926an egin zen lehen aldiz aulki mugikorreko estropada garrantzitsu hau, eta senior mailako gizonen zortzikoek bakarrik parte hartu ohi dute bertan.

Gehienez 420 parte hartzaile biltzen ditu, eta atzerriko 60 ontzi bakarri onartzen dituzte antolatzaileek.



## Aiako Txakolin Eguna

### XVI.edizioa, apirilaren 14an

Apirilaren 14an, igandea, Txakolin Eguna ospatuko dute Aian. Goizeko 11:30ean emango diote hasiera festari Herriko Plazan, eta egun osoan zehar, jan edanaz gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek.

4 euroren truke kopa erosteko aukera jarriko dute antolatzaileek, eta txahal mokadutxoak ere izango dira 1,5 euroan. Eguraldia lagun izan ala ez, ezbairik gabe jan edanaz gozatu ahal izango dute Aiara egun horretan gerturatzen direnek.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

• Logela alokagai, Orion Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550

• Logela alokatuko nuke Orion. Beste lagunen baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688690385

**Lan bila**

• Ume zaintzan zein etxe-ko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoen zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziakin. Tf: 661133295

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxe-ko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636312231

• Neska lan bila. Barne-zaintzailea, garbiketa lanak, eta zaintza. esperientziaduna Orion bizi naiz. Marlin. Tf: 632582365

• Ume zaintzan lan egi-

teko prest dagoen neska oriotarra naiz.

Tf: 676441327

• Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642696038

**ITSASOA**

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	03:14 eta 15:43	09:21 eta 21:34	☾
02	03:55 eta 16:19	10:00 eta 22:12	☾
03	04:30 eta 16:51	10:34 eta 22:45	☾
04	05:02 eta 17:21	11:06 eta 23:18	☾
05	05:33 eta 17:50	11:37 eta 23:49	☾
06	06:03 eta 18:19	12:08 eta ____	☾
07	06:33 eta 18:49	00:21 eta 12:39	☾
08	07:05 eta 19:21	00:54 eta 13:12	☾
09	07:39 eta 19:56	01:29 eta 13:48	☾
10	08:18 eta 20:38	02:08 eta 14:29	☾
11	09:06 eta 21:30	02:55 eta 15:18	☾
12	10:08 eta 22:40	03:53 eta 16:21	☾
13	11:32 eta ____	05:08 eta 17:40	☾
14	00:09 eta 13:04	06:33 eta 19:04	☾
15	01:35 eta 14:20	07:52 eta 20:16	☾
16	02:43 eta 15:18	08:55 eta 21:15	☾
17	03:38 eta 16:08	09:47 eta 22:05	☾
18	04:26 eta 16:52	10:34 eta 22:51	☾
19	05:11 eta 17:34	11:17 eta 23:34	☾
20	05:53 eta 18:14	11:58 eta ____	☾
21	06:34 eta 18:53	00:16 eta 12:38	☾
22	07:14 eta 19:32	00:57 eta 13:17	☾
23	07:55 eta 20:12	01:39 eta 13:57	☾
24	08:38 eta 20:56	02:22 eta 14:39	☾
25	09:25 eta 21:46	03:10 eta 15:26	☾
26	10:25 eta 22:52	04:05 eta 16:25	☾
27	11:44 eta ____	05:14 eta 17:38	☾
29	01:31 eta 14:14	07:44 eta 20:04	☾
30	02:30 eta 15:02	08:37 eta 20:54	☾

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**APIRILA:**

- 1ean, Etxeberria.
- 2an, Gallo.
- 3an, Redondo.
- 4an, Zulaika.
- 5ean, Iriarte.
- 6ean eta 7an, Esparza.
- 8an, Gallo.
- 9an, Redondo.
- 10ean, Lasa.
- 11an, Iturria
- 12an, Lasa.
- 13an eta 14an, Larrañaga.
- 15ean, Redondo.
- 16an, Lasa.
- 17an, Iriarte.
- 18tik 22ra, Gaminde.
- 23an, Iriarte.
- 24an, Lasa.
- 25ean, Redondo.
- 26an, Lasa.
- 27an eta 28an, Redondo.
- 29an, Lasa.
- 30ean, Lasa.

**Redondo:** Urdaneta Kalea, 8.

- 943 13 38 14 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa Kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Esparza:** Santuturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz
- Iturria:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68. 943 13 40 19 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



# Orio

## Korrika 2019

- Apirilaren 3an, asteazkenean, 'Txilardegiren Klika' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Salatxo aretoan, arratsaldeko 18:30ean.
- Apirilak 6an, larunbatean, 'Hitz-pasa' jokoa (euskararekin eta Korrikarekin zerikusia duten galderen jokoa) kultur etxean, Txurumuski aisialdi elkarteak antolatuta, bi eskoletako LH3 eta LH6 arteko haurrei zuzenduta. 16:30ean.
- Klika 21. Korrika, Orion! Apirilaren 12an, ostiralean (ikusit egitaraua 30 eta 31 orrialdeetan)

## Musika

- Musika eskolako instrumentuko ikasleek, 2. hiruhilekoan ikasi dutena erakusteko, entzunaldiak eskainiko

dituzte, Kultur Etxeko Areto Nagusian.

- Apirilak 1, astelehena, 18:00etan Perkusioko ikasleak.
- Apirilak 5, ostirala, 18:00etan Pianoko ikasleak.
- Apirilak 8, astelehena, 19:00etan Klarineteko ikasleak.
- Apirilak 9, asteartea, 19:00etan Saxofoiko ikasleak.
- Apirilak 11, osteguna, 19:30ean Biolina eta biolontxeloko ikasleak.

## Erakusketa

- Zorione Mendez oriotarrak bere marrazkiak ditu ikusgai, Kultur Etxean, Apirilaren 12ra bitartean.

# Aia

## Musika

- Martxoaren 31an, Andatza auzoan, Jone Uria eta Julene Otegi trikitilarien eskutik, erromeria. 18:30etik aurrera.

## Aiako Txakolin Eguna

- Apirilaren 14an, igandean, herriko plazan, 11:30etik aurrera. r izango da, zein ordutan, non

## Landare Berezien Azoka

- Aprilaren 27an eta 28an, Aiakoa XVII. Landare Berezien Azoka.



**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 - komertzial instalazioak - beira bikoitza  
 - segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 - ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**PIZZERIA**  
  
**KALETA**  
 ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**INDO**  
 Garraio frigorifikoa  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4  
 Tel. 943 894 024  
 Fax. 943 130 144  
 20809 AIA - ORIO

# Karkara<sup>30</sup>ürte

karkara.eus

*Egin ditzagun*

**31** **ESKUTIK!**

**EGIN ZARTEZ LAGUNTZAILE**

*Tel:943 831 527*

*E-posta:karkara@karkara.com*

*688 857 305* 

[www.karkara.eus/bazkidetu/](http://www.karkara.eus/bazkidetu/)